

MATERIALISMO HISTERIKOA

“Mario Lopez” eta “Gernika”



UXUE APAOLAZA LARREA

Krimen matxistak, mediatizatzen direnean, emakumeontzat lezio bilakatu ohi dira, eta bizirik badago, biktimarentzat. Nerea Barjola ikertzaileak Alcasserkoko kasuaren bidez azaldu zigun hori. Eta Nagore Laffageren hilketak ere lezio astun bilakatzeko arriskua izan zuen, lezioa emakumeontzat, bereziki, klase sozial batetik beherakoentzat. Baina, azkenean, norbaitek bataila asko irabazi ditu, orain, Nagore Laffage izateko sinbolo, eta lezioa izan zedin Diego Yllana hiltzailearentzat, eta bere kasakoentzat. Norbaitek borroka asko egin du; norbait gogoratu da ez ahazteaz.

Azken egunetan berriro irakurri ditugu izenok medioetan. Yllanak, ahanzturarako eskubidea omen duela-eta, helegitea jarri zuen Googlek bere izena hilketa harekin lotzen dituen sarrerak ezaba ditzan. Bere izena jakitea kosta zenarekin 2008 hartan, biktimarena baino esaten ez zenean, biktimarena zikintzea askoz errazagoa zenean. Ikasi dugu, ondo, medioek biktimak birrintzen dituztela. Ikasi dugu, ahal dela, biktimaren izena ezkutatu egin behar dela, gizartearen zati handi bat krimen matxista errepikatu eta errepikatzen prest dagoelako, ukazioz, ez-sinestez bada ere. Audientzia Nazionalarekin ados egon behar oraingoan: ukatu egin dio ustezko eskubidea Yllanari. 2008an irabazten hasi ziren bataillen emaitza bat ere bada.

Birrintzeko biktimaren izenik eman ez zaienean, ordea, medioek errazago ahazten dute, dirudienez. Duela hiru hilabete beste krimen matxista batek hartu zituen medioak, birrintzeko biktimarik eskaini gabe. Izen bat irakurri genuen: Mario Lopez. Gogoratzen zarete? Oraindik “Mario Lopez” eta “Gernika” googleatu, eta gogoratzeko aukera daukazu. Oraindik ez da erabaki lezio publikoa, mediatikoa norentzat izango den kasu horretan. Nor ahaztuko dugun. Zer gogoratuko dugun. Beraz, gogoratu: ez ahaztu. ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA
www.adurlarrea.com

ZATIKETARIK EZ! NAZIO
ZAZPIAK BAT
BAT GARA!
BATUSUNA!

BAINA...



MOTZEAN

Soldaten emendia aldarrikatzeko greba eguna burutu zuten martxoaren 20an, Ipar Euskal Herriko sektore publikoan. 500 lagun batu ziren Baionan eginiko manifestazioan. Sektore publikorako erreformarekin Frantziako Gobernuak sektore pribatuko logika funtzionarioen baitan txertatu nahia salatu zuten.

Hezkuntza sistema sozialista aldarrikatu eta “negozioen eta inposizioen” hezkuntzaren kontra egin dute Hego Euskal Herriko ikasleek, IAK deituriko greba egunean.

Apirilaren 1ean eta 2an egingo da Idazleen Biltzarraren 41. edizioa Saran. Ipar Euskal Herriko historia jaso duten argitalpenak eta historialariak izango dira hizpide.

Bizkaiko Diputazioak abiatu du Urdaibaiko Guggenheimarentzat lursailak erosteko prozesua. Muruetan 32.000 metro koadro erosteko asmo du, besteak beste museoa eraikitzeko.

Euneiz unibertsitate pribatuaren proiekturako egindako “zuhaitz mozketa masiboa” salatu du Elkarrekin Arabak: jarduerak “eragin larria izango du Salburuako hezeguneetan”.